

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak enplegurako hizkuntza politikak sustatzeari buruzko bilera egingo du

Lilama Europako sareak jardun on gisa aurkeztuko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Lingua Empresa programa

Lunes, 26 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak irailaren 27, 28 eta 29an [Lilama sarearen](#) seigarren bilera egingo du. Europako Kontseiluarekin batera finantzatu du hizkuntzak ikasteko politikak eta ereduak trukatzeko enpresen eta langileen lehiakortasuna hobetze aldera.

Erresuma Batuko, Frantziako, Italiako eta Suediako bazkide europarrak izango diren bilera horretan, [Lingua Empresa](#) programa jardun on gisa aurkeztu da. Programa Nafarroako Gobernuak garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, enpresetan hizkuntzak irakasteko, eta topaketan 2011rako jardueren egutegi berria aurkeztuko du.

Jarduera horiek irailaren 26ko Hizkuntzen Europako Egunaren barruan egingo dira Europako hizkuntzen aniztasunaren aberastasuna gogoratzeko eta hizkuntzak ikasteak duen garrantzia azpimarratzeko.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak urrirako eta azarorako jardueren programa bat antolatu du irakasleei hizkuntzak irakasteko, eta enpresak eta trebakuntzarako eta giza baliabideetarako aholkulariei Lingua Empresa eredu aplikatzearen berri emateko: Informatzeko bi tailer egingo dira urriaren 19an eta azaroaren 30ean, eta eredu modu praktikoan aplikatzeko trebakuntza ikastaro bat egingo da, 35 ordukoa, azaroaren 3tik 24ra.

Jarduera horiez gain, Nafarroan prestatzaileen sektorearen gaitzazari zuzenduriko garapen profesionalaren programaren modulu berrien edizio berriak egingo dira, Lingua Empresa eredu modu praktikoan aplikatzeko, eta denboraldi horretan doan egingo dira. Zehazki, programako 2. moduluari (irakasteko programarako edukiak hautatu eta sortzeko) eta 4. moduluari (gela birtualak kudeatu eta dinamizatzeko, oinarritzko maila eta tarteko maila) dagozkien prestakuntza ikastaroak izango dira.